




[5]

1971 (Urt. - Mari.)



X

Pedagogia ez daiteke herriaren errealitatea ahazten duelarik bizi. Pedagogia ez daiteke gizarte-ko talde aberatsen zerbitzutan egon, herriaren zerbitzutan behar du bai-
zik; eta herririk ez bada, hots, esplotatzaile eta esplotatuen gizartea baldin bada soilki, pedagogiaren e-
ginkizuna orduan: herri hori sortu e-
ta jasotzea da.

Herriaren arazoari hor-konpon egiten dion pedagogia, edo umekeria bat da, edo-ta guztiz txarra.

"Octavio Fullat" ek.



EUSKALTZAINDIA
BIBLIOTEKA

2 AINTZIN SOLASIA

Gai asko metatu denez, bakoitza laburki eman beharrean gara, aldizkaria honen zenbakia mo kordo bat gerta dadin nahi ez badugu. Hauxe da komedia!

Ibiliaren ibiliz zenbait orrazketa hemen, artikulo hauetan ez-ezik, kursilloaren beraren gaitan ere jo dugu: egun guti, baina bestalde sobera ere bada, noski, leher eginik ikastaldia amaitu ondoan, hamar eguneko saioa. Eta lan sail bakoitzak eta berauei dagokien tekniko-laguntzaileek denbora gehiago eskatzen, eta ezin eman. Esan dezatela, adibidez, "Langile giro", "Haur Erdaldun", "Erligio"... lan sailekoek.

Bertzenaz, hamar egun puztuz gero, beteegi gertatuko lirake igaz bezala, eta nahiko bete izanen diren beldurra badugu jadanik.

Alabaina, hasteko, afal ondoko solasik aurten, non-eta zer bereziren bat sortzen ez den, ez dugu ukanen. Horrek asko arinduko du eguneko ihardunaren zama pisua. Hau dela-eta, gure arteko berri ezagutzen dugu, ba liteke zenbait eta zenbait arratsean bestarako plantatzea. Igazko jokabidea eskatuko genieke horrelakoei. Izan ere, igazko ikastaldietan benetan ginen elkartu: lanerako egun oro, eta parrandarako azken-gauean. Hura izan zen hortik honakoa! "Gauak goiz-alba duela ondoko, lagun, oroi-tadi..."




Dena dela, igazko erabakia da baita uzta ila ikasketarako hartzea, abuztua deskantzurako erabaki zen bezalaxe, eta zinez, itxaro dugu jendeak erantzungo duela serioski ikas-lanetan: pre

miaren gatik,seriotasunaren gatik eta hori eta horrenbesteko nortasunaren jabe geralako.

Besteak beste,matrikulatzearen epea by katzeko egun apurretara heldu gara. Oraino izanen dira hilaren azkena baino lehen izena eman-go dutenak. Hala ere,berrehun eta multzo bat ge hiago ba gara Iruñeko ikastaldirako. Besteren beharrik! Jendea frango,bai,denek behar bezala lanean ahaleginduz gero,ikastolei bide garbi bat erakusteko!

Horiek horrela,ordea,bidea garbi ikusi arren,eta ongi markatu,aurrerat ez baldin badugu jotzen,gauzak erdizka bakarrik eginen ditugu. Aurrerat,aldiz,udako ikastaldian hainbat be har da jo kurso barrunbean:abuztuaren ondotik e torriko diren hamar hilabeteetan zehar. Har dezagula hau ongi gogoan:orain,hamar egunez;gero hamar hilabetez.

Arduradunek



4

V D A K O I K A S T A L D I A

Gure aldizkariaren azken-zenbakian: "Datorren hilabeteko aldizkaria osoki kursilo*e*i emanik johango da" esaten zen. Horra bada, aldizkaria, gure arazoak astintzeko dugunez, oraingoan, udako ikastaldiari buruz behar dugu zenbait puntu planteatu.

Hirutan, bereziki, emango dut hemen esan behar dudana, eta guztiz laburki eman ere: begien bistan eskematxo bat eduki ahal izateko moduan.

1.- ZERTARAKO IKASTALDIAK .- Gure egoera aztertzeko. Egoera, ingurua, kontestoa, herria, giroa, eta benetan hitz handiak. Baina, zer esan nahi da zehazki?

a) Ikastola zer den, eta zer-nola xertaturik behar duen. Gure eginkizuna zein eta nola moldatu: organizazio minimum baten egituraren beharra eginkizun hau aurrerat eraman dezagun.

b) Heziketa zer? Norat xuxendurik behar duen izan. Zer helburu, helburu nagusiak, helburu zehatz eta jatorrak nondik markatu ahal izateko, zein balore behar ditugun gogoan ukan.

d) Pedagogia zer den . Zer material dardukagu, zein behar eta premia. Zer lanera, nola ikasi eta prestatu behar dugun.

2.- ZER NOLAKO IKASTALDIA .- Nere ustez, lehendakik esana dagoen bezala, irakasle on lan pertsonalak du baliorik behin eta handiena. Nork bere esperientzia aportatzea, guztionak bateratzea eta elkarrekin aztertuz edo elkarrenak konparatuz, bakoitzarena aberastea. Hau da gure ikastaldien oinarririk funtsezkoena.

Guztion parte hartzea, talde lana, talderak... ez dira horren ondorio baizik.

Zein den beraz, espezialisten eginkizuna? -
Pedagogiako puntu orokarrak eskaintzea. Berek be-
ren programa ekarri eta hura sudurretik sartzea
ez da inola onartzen. Honek pasibitatea sortzen
du haurren ez-erakortasunaren eraginez. Arras bazte-
rreratu behar genuke gisa honetako sistema oro.

Lehenik, gure prolemak eta egoeraren ko-
rapiloak ongi jorraturik behar ditugu, eta datoze-
la orduan espezialistak, gure premiei erantzun-
dien espezialistak, gure zailtasunetan laguntza i-
zanen diren espezialista jakintsuak.

Gainera, gero ere, erabakiak hartzea gu-
re baitan behar du, guk erabaki beharko dugu - eta
zer komentatu den ikusi ondoan. Nondik eta nola hasi
lanean? Hemen dator ere programatzearen balioa i-
kustea eta hurrengo urterako programa moldatzea.

Erabakiak, noski, gure ahalmen eta beharren
arabera, guk mamitu beharko bait dugu, funtsean, egu-
nero-egunero pedagogia.

3.- GAIRIK BEREZIENAK .- Hiru gai nagusi.

a) "Ingurua eta kultura" deitu dugu ikastal-
diaren lehen-partea. Guztira hiru egun: sarrerako
biak eta beste bat geroago. Zer izanen den zehatz-
-mehatz? Gure gizarte honen arazo eta berezitasun
nagusien agerpena egingo du soziologo batek.
Kontestoa mugatu ondoan, beste batzuek: Ekonomiaren
jokua eta klase burruka; Kultura jatorraren azta-
-rrenak; Hizkuntzaren nortasuna; Bilinguismo eta haur
erdaldunak; Ibilaldiak eta geografiaren estudioa.

b) Hizkuntzaren teknikak. - Gai nagusi ho-
nen biran bilduko direnak: Hizkuntzaren gramatikaz

aparte, zer bitarteko diren gaurregun hizkuntza-
ren ikasteko. Alegia, hizkuntzaren arauak buruz
ikastea bezain jatorriago ikas daitekeala hiz-
kuntza egungo zenbat teknikaren bidez. Hala no-
la, espresio-bide guztiak: bai ahozko espresioa e
ta bai ekintzazkoa. Hontan, bereziki, jorratuko
direnak. Irakurketa-idazketa; Idaz-azalpenak (
testo librea, korrespondentzia, elkarrizketa...);
Ahozko espresio bideak (ipuin, irudikatze, abesti..

d) Dinarri-lege Nagusia.- Memento hone
tan, batez ere, behar beharreko ditugu kriterio
ziur eta zehatz batzuk. Lehenik, informazio beza
la, Irakaskintzaren Lege Berria delakoa presenta
tuko da gai honen ikuspegia. Gero: Fitxa eta eba
luazio lana; Haurraren ekintza-bideak, bi gai be-
rezi johango dira.

e) Gai libreak.- Aipaturiko gai nagusi
horiekin lotura eta elkarbide handirik ez duten
gaiak sartzen dira titulo honetan. Adibidez: Ma-
tematika eta Erlijioa; Entzun-ikusgailuak; Taler
lanak (limografo eta linoleun, panpin-solasak, buz
tina, estainu...); eta afal aurrean egingo den
organizazioari buruzko lana.

Hona hemen beraz, gure ikastaldia -
ren planteamenduaren ikuspegia. Gure ikastaldi-
ak, diot, gureak; baina kondizio hauetan izanen di
ra gure:

- Guztiok eta bakoitzak parte hartzeko-
tan.
- Lan pertsonalean oinarritzekotan.
- Eta urtean zehar egiteko bidea elkarre
kin markatzekotan.

Hurko.

GALDEKIZUNAREN BILDUMA

Sarrera. - Apal eta handi-haizerik gabe, behetik gora abiatuaz eta geure egoeraren arazoak aztertuz, ari gara udako ikastaldia antolatzen.

Dakizutenez, "Haurra eta ingurua" delako gaia ikasteko seinaturik daduka ikastaldiak bere lehen-partea. Halatan bada, irakasle bakoitzari bidali zitzaion galdekizunak ekarri ditu bere erantzunak.

Egia, erantzunak ez dira asko; bederen, nahi hainbat ez inola ere, eta zenbait eta zenbait aski axalekoak eta arin samarrak gertatzen dira. Halere, banaka edo taldeka landurikoak ditugu daduzkagunak: iduri du hirurogei-larogeiren bat irakaslek hartu duela parte erantzuten. Beste zenbaitek bidaliko dauku oraino, noski, bere erantzuna, baina ezin gaitezke horiei begira egon, baldin-eta garaiz uztaileko aldizkaria eman dezagun nahi badugu.


Erantzun jatorrik ere ba da tartean, eta ahalik bilduen eta xuxenkien jasotzen gara saiatu.

Eta azkenik: nola egin dugun bilduma edo zer kriteriorekin jokatu dugun? - Horra bada.



Galdekizuna lau galdetan planteaturik zen eta hauetako bakoitza xehekiago beste zenbaitetan birbanaturik, gisa horretan galdekizun bat baino test bat gehiago iduri zuelarik. Horregatik askok ez du galde xehe hauetakoren bat (bere iritzuari zegokiona, noski,) gurutze batetaz seinaltatu baizik egin. Honela, beraz, zerbait berririk a-

portatu duenarekin burutu dugu bilduma edo erantzunen laburpena.



Galdekizuna.-

1) Zer arrazoin dira funtsezkoenak, zuk udako ikastaldi honetan parte hartzerat bultzatu dautzutenak?

- Andereño bezala herri-ekintza bat esku artean dugunez gero, erantzun osoago bat eman ahal izateko bidearen bila gatoz.

- Pedagogia berria eta nere irakaslekidetaren kezka eta esperientzien berri ikastera.

- Euskeraren eta herriaren egoera aztertzea: hau ikusi ondoan, gure lanaren beharra ikusiko bait dugu.

- Euskara eta herria: ondoren, pedagogia berria. Ikastolan ez dakigu askotan zertarako gauden, ez nola jokatu, ez-eta geure lana zehazki zer den. (Hontan sakondu behar da ongi).

- Haurrak guztiz gogoko ditut, eta euskara-herriaren egoerak eragin behar du gure lana.

- Elkarren berri jakin nahia. Herri kezka eta kontzientziaztea, pedagogiarekin loturik dohanez.

- Ari garen lanari helburu garbiagoa biltzearren.

- Euskara eta herriaren egoeraz jabetzea, zer lan egin eta nondik jo ikasteko.

- Elkarren esperientziak trukatzeko bidea

delako.

- Herriaren egoera aztertzea beharreko heziketa xuxen bat mamitu ahal izateko.

- Euskara eta herriaren sustraiak ezagutu, haurra osoki hezitzeko.

- Beste irakasleekin ukan behar den har-emana,urteko lana,elarrekin aztertuaz,finka deza-gun.

- Gaurko Euskal-Herriaren egoera ikusi,e-ta nola hobeago egin aztertu ondoan,haurraren he-ziketa finkatu,zer-ikusi handia bait du hontan.

- Herriaren girotik aparte,heziketa onik ezin egin daitekealako.

- Euskara,herri kontzientzia bat ukan ez-an,ez da interesgarri eta haurrek beste gabe ez diote garrantziarik emanen. Pedagogia berriak haurraren zerbitzutan izan behar badu,hementxe finkatu behar du.

- Pedagogiaren eboluzioak,herriaren eboluzioaren pare johan behar du.

- Gaur pedagogia mailan lanik garrantziz-koena,denok pedagogia molde berdintsu bat hartzea ikusten dut.

- Euskal gizartean ongi finkaturik behar dugu,eta bere egoera edo behar bereziekin hartu. Hortarako:herritasuna eta hizkuntza eta zapaldu-en alde jokatzea. Hau dena gogoan harturik zer helburu du,bereziki,gure hezitzaile lanak? Horra ikastaldi honetan argitzea eta sakontzea nahi genukeana.

2) Ikastaldi honetatik zer da konkretuki atera nahi duzuna?

!- Nere lanera edo metodoa besterenarekin konparatu nahi dut, xuxentzeko edo berritzeko.

- Inportanteena gure artean taldeak osatzea ikusten dut, lanean espezializaturiko taldeak alegia.

- Andereñoen arteko lotura sortzea eta gure lanaren kontzientzia bizkortzea.

- Besteren esperientziez aberastea.

- Herri burrukan andereñoen lekua zein den. Gehiago organizatzeko bideak egitea.

- Besteen berri ikasteak eta elkarrekin erabakiak hartzeak ekarriko dauzkidan esijentziak ditut gogoan.

- Batasun bat (metodo, programa, organizazio...) nola moldatu behar dugun.

- Haurrekin nola lan egin eta elkarrekin nola organizatu.

- Euskarari buruzko korapiloa besteek nola moldatzen duten ikasi.

- Metodo berria, eta material berria ezagutzeko bidea.

- Herriaren kontestoan zer eginkizun duen ikastolak nahi nuke ikus dezadan garbira.

- Ikastolak nola herriaren zerbitzutan jarri eta ez klase baten interesen baitan.


- Urte bakoitzeko haurrari zer irakatsi, eta besteek zer egiten duten ikasi.

- Gero eta urrunago elkarrengandik gerta ez gaitezen oinarrizko puntu batzuk bilatzea denontzat.

- Igaz egin genuen bezala, hurrengo kurso rako lana prestatzea.

- Herri burrukan zenbateraiño sartzen garen ala ez, eta hortan daduzkagun posibilitateak ikustea.

- Ikastola, jakintza eta euskara hutsa irakasteko bakarrik ez denez, nola haurra herriaren bizitzan xertatu bere prolema eta egoera irakatsiaz.



3) Zeintzuk dira gaurregun eta zuk andereño bezala, ikusten dituzun arazorik funtsezkoenak haurrei dagokienez?

- Bizi dugun giro eta mundu husteldu honetan, nola haurra zentzu kritiko bat emanaz hezi. Hau da neretzat korapilorik handiena.

- Kontzientzia baten jabe ez garela, eta gero, ez dugula metodo jator bat haurra heitzeko.

- Gu izan garen bezalakoak ez dutela izan behar gure haurrek.

- Gure herriak behar duen giza-motaren berezitasunak, nagusienak, zeintzuk diren mugatu.

- Planteamendu sakon baten beharra, lan egiteko modu egokia bilatzeko.

- Talde bezala ezin josia, organizatzerako baino lanerako sakontasunean.

- Herri kontzientzia eta garra falta dugula.

- Ene ustez, mementoan erlijio arazoa. Giza-jatortasunean oinarrituriko erlijioa behar dugu, eta ez teoria edo farsa hutsa dena.

- Jakintza eta euskara hutsa ukaitea ikastola lanerako aski dela pentsatzea.

- Gure haurren nortasuna burutzeko zer balore diren garrantzizkoenak eta zer bide ditugun hortarako. Berezik, langile kontzientzia.

- Programa berdintsu baten barruan ibiltzea, Legearen programarekin konparatu ondoan.

- Influentzia ikaragarria du etxeko edo kaleko giroak haurraren heziketan. Gurasoen eta inguruaren giroa burgesa denez, haurra hortan hezitzea da arazorik gaiztoena neretzat.

- Ez-jakintasun handia.

- Gure herria gehienik langile herria izanik, beharko dugu hontaz jabetu, baldin-eta haurrek giro hau arnas dezaten nahi badugu.

- Harraren nortasuna lantzeko psikologia jakin beharra.

- Euskal-irakaskintza gihartsu bat izateko organizatu beharra.



4) Zuk andereño jendeari, jeneralki begira turik, zer arazo ikusten dituzu funtsezkoenak?

!- Bizitzaren ikuspegi errealista eta garbi bat ez dadukagula, gure egoera aztertu eta ikastola-ekintza finkatzeko.

- Gure organizazioa, guztion eginkizuna ez-baina, bakar batzuen balitz bezala hartzea, ni arduratzeke. Ikastolaren helburuak ikusi eta kemenez lagunduko daukun organizazioa.

- Lan pertsonala (irakurri, ikasi, idatzi...) eskatuko duen formazioa eta gero, gehiago elkar-tzera eragingo duena.

- Organizazioa batzuen eskuetan uzten dugula.

- Sozial alderdia da hutsunerik handiena gure formazioan: honekin batera dator organizazioaren arazoa.

- Herri kontzientzia eragile izango den formazioa. Anderen desbiatorik? -Mito bat gara, eta ez dugu erantzuten herriak eskatzen duen heinean. Maila batetan gelditu garen ustea dut.

- Anderen desbiatioak? Ikastola lanbide hutsa bezala, hartu dugula askok eta askok.

- Gizarte arazoaren dinamikarik bage aurkitzen gara gehienok, eta organizazio baten beharrik ez dugu ikusten edo ikusten badugu ere "hor konpon" egiten dugu. Desbiatioak? Ikastolan zertarako gauden ez jakitea; euskara ongi ez jakitea; herri kulturaz eta arazoez jabetzeke egotea..

- Organizazio bizi baten falta.

- Desbiatorik? Pertsonalismokeria handia gure artean; ez gaude talde osatu bat bezala, herriaren kultura eta eraginaren zerbitzuko langile bezala organizaturik.

- Bakoitzak bere aldetik jokatzera eta talde lanaren kontzientziarik eza.

Oharra: Erantzunak aski xeheak direnez, ez dugu uste gehiago jorratu beharrik duenik galdekizunaren bildumak. Beste gabe, irakurleak usma dezake erantzunek erakusten duten giroa eta behar diren ondorioak atera ere bai, ahalik-eta sakonki en eta aberatsen gerta dadin ikastaldia.



HERRI LANGILEA

Langile lan-sailekoak gara. Talde honen berri askorik ez duzute behar bada jakingo, eta horregatik azalduko dautzuegu hemen zerbait.

GURE EGITEKOA

Gure egitekoa zein den aztertu baino lehen ikastola mugimenduaren helburuak aituko ditugu.



Helbururik nagusiena haurren heziketa osoa da. Haurra osoki hezitzeko, ordea, bere nortasunaren jabe izan dadin lagundu behar dugu, bere gisa jokatzen ikas dezan, baina, kontuan harturik gizon iraultzaile bat egin behar dugula, herriaren zerbitzutan jokatuko duen gizon bat.



Iraultzaile egin behar dela honekin esan nahi duguna hau da: herri konkretu bateko gizarteari erantzungo diona dadila. Bere problematika ezagutu, aztertu eta honen alde burruka egingo duena, alegia, zapalduekin jokatuko duena. Hau guztia ikusirik taldeak herriaren egoera egoera aztertu du.

Ikastolek, gure herrian finkaturik behar dute, eta lehen esan dugun bezala, gure problematika aztertu. Azterketa honetan, arazo bera izanik, arazo bi ikusten ditugu: a).- Herri arazoa. b).- Langile arazoa.

Herri arazoa esatean, Euskal Herriak etnia bat izanik, ez duela bere nortasunik esan nahi da, eta bi kultura handiren menpean dagoela, ondorio guztiekin.


Sozial alderdia:hau ere goitik zuzendua eta kapitalista sistimaren pean dagoen estruktura ekonomikoaren baitan. Diruaren indarra, langilearen morrontza. Honela ikusten dugu gau rregun gure gizartearen egoera.

Kapitalista sistemaren ondorenak:

Gizona materialista bihurtzen duela, or-konponzalea eta bakarkoia. Hontarako erabil-tzen dituen bitartekoak:diruak maneiatzen ditu ela eskola,unibersitate,informazio,etab.

Sistima honek bakar jabetza defendi-tzen du;eta honela,garbi dago,nagusiek edo ba-kar jabetzarik ez duena zapaltzen du.

Hau dena ikusirik,ikastolaren eginki zuna,gure ustez,hor burruka egingo duen gizona sortzea da. Eta hauxe aztertzea izan zen gure lehendabiziko pausoa,eta hau ikasi ondoan,ikas tola gaur egun zer den aztertzea.



Lehenik,taldean nola aurkitzen gi-nen problematika honen aurrean ikusi genuen. Gauza askotan oraino konturatu gabe gaude eta besteei azaldu ahal izateko indarririk gabe. Or-duan garbi ikusten dugu geure burua jantzi be-harra.

Andereñoak berriz,jeneralean,ez dira arazo honetaz konturatu ere egin eta zerbait i-kusi dutenek ere ez dute zer-eginik ikusten ara-zo honetan ikastola barruan. Gu jantzi gabe bal-din bagaude nola haurra landu behartsu mentali-tate honetan?

Beraz, hau guztia ikusirik, gure lana jendea honetaz jabetueraztea ikusten dugu eta praktikan nola pedagogia bizkor eta lehiatsu bat egin.

Aurkitu ditugun zailtasunak: guretzat kasik gai berria izanik, ez genekiela nondik jo.

Lanean hasiko baginen, gai hontan esperientzia zuen jendearen beharra.

Materialaren falta, eta nahiz materiala ukan, guretzat erraza zitekeena behar genuen hasiera baten.

Honek denak denbora eskatu dauku, berandu hasi ginela kontuan izanik.

EMAN DITUGUN PAUSOAK

- Hasteko, galdekizun bat zabaldu genuen andereñoek zer pentsatzen zuten jakiteko. Berrehun banatu eta hogeitamar jaso genituen, eta askotariko erantzunak. Adibidez, galdetu zeukun norbaitek ea arazo berrien bila genbiltzen, ikastolan nahikorik ez zegoelakoan edo.

- Lehen esan dugun jende esperientziadunakin har-emanetan jarri ginen.

- Materiala lortu, hura piska bat taldean aztertu eta material berri baten bila gabi biltz orain.

- Taldeko gehienok bailara berekoak garenez, hemen planteatu genien beste irakasleei arazo honen landu beharra. Onartu zeukuten eta zer metodo erabil genezakean galdetu genuen edo materiala taldeka aztertu behar zen edo hitzaldiak antolatu edo zer egin.

Erantzuna, hitzaldiak antolatzekoa izan zen baina oso behetik eta xeheki abiatu-rik lanean. Hiru hitzaldi antolatu genituen hasteko. Gaia: Langile klasetatik ideia batzuk argitzea. Lehenbiziko bietan andereñoek poliki erantzun zuten, baina hirugarrenean, edo garaia halakoa zelako edo interes guti zutelako, hamabi baka-rrik etorri ziren.


- Azkeneko pausoa: udako ikastaldi bar-rruan egun biretako iharduna antolatzea. Egun pare horren helburuak?

Ez dugu inola pentsatzen jendea bi egune-tan osoki jabetuko denik. Baina galde batzuen aurrean jarriko dela uste dugu.

Gure pentsamendua gerora begira dago, ge-hienbat. Oraingoz, plan batzuek edo konpromiso batzuen hartzea soilki, ontzat ematen dugu.

Eta hona, beste gabe, gure programaren berri azaldu dautzuegulakoan.

Langile sailekoak.





Azken aldi hontan ba da jendea frango hizkuntzaz mintzatzen eta kezkatzen hasia dena. Alde batetik hizkuntzaren profesionalak, hontaz egiten ari diren aurrerapen berri emateko edo-eta teoria berriak xehetasunez aztertzeke. Bestetik herri giroan murgildurik dauden langileek. Sozial nahiz politiko arazoetan lanean ari direnek, noski. Gurre alorra, heziketa alorra bereziki izanik, hizkuntzaren arazoari aurpegi eman beharko dio. Euskal kultura euskeraz ematen bagabiltz, zergatik hau egiten dugun jakin behar dugu. Euskeraren egoeraz jabetu behar dugu. Euskera menderatu behar dugu.

Hizkuntza zabaldu eta indartu nahirik dabil gaur euskaldun mordoska bat, gure horien artean garelarik. Bestalde hizkuntzaren arazoari garrantzia kendu nahi diotenek ere ba dira gure artean. Mito bat bai litzakean erauzi nahirik dabiltenek ere ez ditugu falta. Hemenka hizkuntzari buruz bide bat markatu nahi da, jokabide bat ala bestea konkretuki hartu nahi da. **ETA GU NONDIK GABILTZ?**

Mugimendu honek zera adierazi nahi du: hizkuntza arazoa bazter utz ez dezakegun zerbait dela. Nahiz alde ezberdinetatik abiatu hizkuntzaren problema jo egiten dela. Zintzo jokatzeko, problema honi, zehar bidez ihes ez baino aurpegi eman beharko diogu. Hau jende guztiari gertatzen zaio, baina bereziki guri.

Are gehiago, hizkuntza arazoa herrirat darman bidea delako. Non hizkuntzaz eztabaidatzen hasi, han herri maila harrapatzen da, edo harrapatu

behar litzake. Herri hizkuntza, herri txiki baten hizkuntza dugu gurea.

Herri bat bere nortasun bila, bere kultura bila ibili dabilenean, hizkuntzarekin topo egiten du. Herri ororen pizkondeaz bat hizkuntzarena etorri ohi da.

Gure herriak, zuk eta nik, beste zenbait alienazioen artean, hizkuntzarena ere bizi dugu. Eguneroko gara hizkuntzak ezartzen dauzkigun mugaez konturatzen. Hizkuntzaren alienazioa beste alienazio batzuen, alegia alienazio funtsezko batzuen ondorioa dateke eta izan ere hala dela frogatzea ez litzake zail izanen. Orduan alienazio honen erroak aztertu behar dira. Alienazio hau behar den ikuspegiz begiztatzeko, bere mailan jarri behar dugu. Honela izanen bait zaiku posible, egoki den eran alienazio hau gainditzea.

Baina alienazio hau egiazko alienazio dela ontzat emanik; zer EGITEN dugu gainditzeko?

Hemen beste alderdi guztiak utzirik, gutaz zerbait komeni dela uste dugu. Guretzat eguneroko zama eta eguneroko lana delako. Maiz aski arazo hono aurpegi emateko ez dugulako.

Berriro ere planteamendu sakon bat egin beharrean gaude. Arazo hau nagusietako bat izanik planteamendu serio batez bakoarik erantzun ahal izanen diogu.

Gure hizkuntzaren egoera penagarria baldin bada, eta hau egia denik nori ukalazake, erremedio bila hastea besterik ez dugu, eta gehiegizko negarrik egin ordez lanari lotu behar gatzazkio.

Gu irakasleok herritar izanik herriaren bizkondeari lotuak behar dugu egon, hizkuntzaren bizkondeari bereziki. Herri zahar hau bere hizkuntzaren jabe izan dadin lana egin behar da. Lana

luzea, neketsua eta apala egin behar da. Herria hau bere berezitasunaren jabe izan dadin, herri honek bere arnasa harrapa dezan, herri hau bere gso izatearen mailara hel dadin, hizkuntzaz jabetu behar du bere espresio bideak landu egin behar ditu. Lana hau bereziki guri dagokigu. GUGANDIK HASTEN BAGERA, noski.

↑↑↑↑↑↑↑↑↑↑↑↑↑↑↑↑↑↑↑↑↑↑

Hizkuntzaren problema sentitzen hasi bagara, herria mugitzen hasia den seinalea izan dateke.

Herria martxan jarri delako, hizkuntzaren berritze eta indartze bat nabari da. Beraz, guk, gaur eta hemen, gure herriari erantzuteko gure hizkuntza berritu eta indartu egin behar dugu. Martxa hontan sartu ez sartu da kontua, euskal literatura berria onartzea ez onartzea, gure heziketa pertsonala osotzea ala geldi egotea, problema hau seriotasunez hartzea ala ez hartzea.

Jendea herri problemak aztertzen hasi delako, hizkuntzarena ere azaldu da, hor dago. Ez da ba sasi problema horietako bat, egiazkoa da, zurea eta nerea da, euskaldun ororena da; baina guk oso gurea senti dugu. Eta gaudenetan jarraitzeak mugatu egiten gaitu, akonplejatu egiten gaitu.

Gure heziketa, gure kultura euskeraz eman ahal izateko, euskaldunki eman ahal izateko euskeraz eman behar. Eta hontarako euskara gureganatu behar dugu, euskara landu, euskara gaitu.

IRAKASLEOK behin eta berriz arazo hau gure artean planteatu dugu. Arazo hau larrienetako bat ikusi ere dugu. Gure ez-jakintasuna aitortu ondoren hizkuntza menderatzeko eskolak han-hemenka hartu ditugu. Halere, egoera penagarri hau ia zegoenetan datza. Maiz aski ez dugu azkeneraino jarraitzeko kemenik izandu. Ez eta ez, ez diogu lanari

serio heldu. Ezin dezakegu inola ere esan gure helbururik lortu dugunik. Errua gurea da, guztiona da, gogorik ezarena da, gure makaltasunarena da. Badirudi bakoitzak gure euskararekin gure euskara pobrearekin, gure euskara negargarriarekin jarraitu nahi dugula. HOLA JARRAITUZ GEROZ, EUSKARA - REN AURKAKO LAN NEGARGARRIA BESTERIK EZ DUGU EGINEN.

Euskara batasunerat abiatzen hasi den garaian, gure neke eta indarrak biltzea oso zaigu premiazkoa. Batasuna eginkizun dago, guretako bakoitza bide hontan barrena abiatzen ez deino. Batasuna guztion eginkizuna da, batasuna da hizkuntzaren bizitzarako nora-ezekoa, hizkuntzaren arnasa delako. Batasuna ahalik azkarren egin behar da. Batasunak bide batzuk markatuak ditu. Araudi horietaz jabetzeko nahiko denbora izan dugu. GU NON GARA ORDEA?

Batasunaren aurkakoa ez da bakarrik, batasunaren ordeaz zazpitasuna sortu nahi duena. Batasunaren aurkako da hitzez batasuna aldeztu duena eta egitez batasunaren araudiez, naiz saio ez jabetzeko kolperik ematen ez duena. Bide hau serio hartu nahi duenak hor dauden neke guztien barrena igaro behar da, hor ordu anitz eman behar du.

Datorren ikastaldian hontaz luzaz egiteketo betarik izanen dugu. Euskarari, gureari aurrenik, bultzada bat emanen badiogu datorren ikastaroan arazo hau haste-hastetik planteatu behar dugu.

Berriz ere, mila aldiz, arazo hau planteatu ez bageneza, bereziki oinarritzko arazoetako bat jo ez bageneza, beti itzulika gabiltzaz

ke. Beti hasteko eta beti hasteke.


Egiazko arazoa baldin bada, egiazko arazoa dela aitortu ondoren, urte guztirako programazioan sartu behar dugu. Honen premia ikusiz geroz, dagokion erantzunik ematen ez saiatzea, bidez kanpo ibiltzea besterik ez da.

Denok dakigu euskara, denok moldatzen gara eguneroko lanak jarri ohi dauzkigun hestuasuneetatik ateratzeko. Denok dakigulako da hain zuzen, euskeraren egoera hain negargarria.

Guti irakurtzen dugu, are gutiago idazten. Ez dago bada irakurtzerik ez eta idazterik asko irakurri eta idatzi ezik, egunero irakurri eta idatzi ezik, eta hasiera-hasieratik hasi ezik.

Ez ahal legoke ondo, urte guzian barrena programazio zehatz bat egitea, benetako kanpaina batzuk egitea. Egin dezagun herri mailan, bailara mailan eta euskal herri osoaren mailan honelako lan zabal eta luze bat.... eta behar bada euskeraren urtea izanen genuke, izanen litzake...

Xabier.





ERLIJIOA

Aurtengo ikastaldian jorratzeko hautatu diren hiru gai nagusi ta berezietarik landa dago erlijioaren gaia, baina egungo egunean eztabaidako gaia denez, ez dezakegu saihestu. Horregatik, igande eguerdi artea hortara emana izanen dugu.



Eztabaidako gaia dela esan dugu eta ez da duda-muda handirik hontan. Lehenik, nola gurasoak hala irakasleak, non-eta arras axolakabeki jokutzen ari ez den, erro-errotik bizi bait du erlijio arazoa, noski. Baina ez dirudi tirabiraren bihurria hontan datzanik, hala ere. Oso besterik da, gure ustez, bihurriaren barne-haria.

Egungo eboluzio honetan, munduarekiko ikuspegi eta pentsa-moldea da aldatu, eta hor dago gakoa eta hortik sortu da preseski erlijioaren bihurri dohatsu hori. Zibilizazio bakoitzean, beroni dagokion eite edo moldeetan mamitzen da erlijioa. Hau garbi dago. Beraz, zibilizazioaren aldakuntza bat sortzen denean eta honen arabera lehen urratu, erlijioa ere zaharkitu egiten da edo, bederen, soineko jantziak bezala herstuengi gertatzen. Horra.



Hau honela izanik, edonork lezake ikus, memento honetan, erlijio planteamendu xuxen bat egin ahal izateko ez dela aski egun bat, ez-eta zerbait gehixeago izanik ere, hamar eguneko ikastaldi bat. Are gutiago, gure hau bezala gaiez gainezka bete-betea denean.


Gainera, planteamendu ona egin arren, beste korapilo bi bait daduzkagu askatzeke: erlijioa

ikastolan duen lekua bilatzea eta zer pedagogia erabili ikastea. Lanik asko ematen duten korapiloak biak ere!

Eginkizun hau guztia ikusirik, beldurra ematen du hain denbora guti hartzea horretarako, ez ote den xinpleki jokatzeari. Ez pentsa, behin eta berriro zalantza bizian ibili gara: merezi ahal du denbora gehiago ez ematekotan (eta agidenean, beste zenbait gai ere larriak direnez, ez da posible) erlijioa aipatzea aurtengo udako ikastaldian? Hauxe zen geure artean galdegiten genuena.



Azkenik, ordea, baietzat irabazi du. Arrazoina? Bederen, bide nagusia nondik norat dohan entzunik ukan dezagula eta jakinarren gainean egon gaitzezela, gero, urtean zehar, lan pertsonalaren eta taldeko lanaren bidez sakondu eta gorago aipatu ditugun hiru puntuotan: planteamendua, ikastola eta pedagogiari buruz dagoen prolemari erantzun dizai egun.




Horregatik, erlijioari buruz egingo den lanak, oraingoz, xede eta helburu bat darama: zera, zenbait kriterio nagusiren argitzea; eta gutxi-asko puntu hauetan finkaturik doha: Jainkoa askatzaile dela; Elizaren muina eta askatasun eginkizuna zer den; Ikastola eta pertsonagintza; Katekesia eta Ikastola.

Puntu hauek eman behar dituenaren eske mak eskuetan ditugu baina luza ez dadin ez gobaz gehiago aletzera.

Dena dela, laupabost hitzalditarako gaia prestaturik dago, eta denborak erakutsiko dauku gaia zenbat bildu edo hedatu behar den. Denborak eta han sortzen den elkarrizketa giroak.

Orduan, lehen aipatu dugunez, johan gaiten kriterio batzuek, behintzat, argitzera eta hor_u tik aurrerakoa johango gara kurso bitarteko ikas taldi laburretan-edo hornitzen.

Erljio taldekoak.



KALABEHARRAREN MATEMATIKA ESKOLAN

Matematika berria delakoa ikastoletan sartzen hasi da zorionez irakasle batzuek hori ez zela posible eta matematika berriak ez zuela ezertarako balio esaten baldin bazuten ere. Oker zeuden, noski, bai pedagogiaren aldetik, (izugarri ona bait da matematika berria haurraren adimena lantzeko), bai gure sasoiaren aldetik.

Non datza matematika berriaren berri tasuna? Erantzun honi erantzuten saiatuko gara hitzaldiaren lehenengo zatian.

Matematika kopuru eta neurriarekiko dimensioaren zientzia izan zen hasieraz. Gero, ba tez ere, Pitagoraren eta pitagorratarren haroan zen absolutuaren zientzia bihurtu, matematikak ab solutuaren ezkutuzko eta misteriozko errealitate a adierazten daukulakoan zeudelako jakintsu hoik.



Aljebra asmatzearekin, sorgintasun e ta "majia" itxura hartu zuen, sinbo- lo egoki batzuen bitartez zenbaki e zagutu gabekoak, nahiz-eta ez ezagu- nak izan, erabiltzen hasi zirelako. Hau ere, bere denboran, matematika guztiz berri-bat izan zen, noski.

Berpizkunde-haroan, mugimendu eta dinamikaren legeak analizatzeko Fisikak beharreko herremintak eratu zituen Matematitak. Gisa honetan jaio zen kalkulu infinitesimala deitzen duguna. Izuga rri berria zen aintzinako matematikaren aldean.

Gaurko egunotan beste matemati ka berria bat agertu dela esan daiteke: es- truktura edo egitura-matematika delakoa. E- ta hau da eskoletan orain sartzen ari dena.

Saihets batzutatik gaurko matematika berri-
a giza-ekintzaren, edo organizazioaren matematika
tzat har dezakegu.


Jendearen har-emanak bereziko esturaturak
dituela berehala ikusten bait da. Hizkuntzak be-
rak zer-ikusirik ba du matematika berri honekin.
Baina ez dira bakarrik esturaturak. Matematika
berriak beste elemento bat sartu du bere saile-
an: HALABEHARRA.



Halabeharra erderaz "azar", "casualidad"
deitzen dena da. Kausa eta efektoaren dinamikaz
loturik ez dauden gertaerak, HALABEHARRAK mugit-
zen dituela esan ohi da.

Gizon modernoak halabeharra neurritu
eta erabiltzen du bere kalkuluetan. Gaurko bi-
zia ezina izanen litzake kalkulu horiek gabe.

Bestalde, haurra sail honetan sartzea
oso bidezko eta egoki da, eta gainera, zaila ez
dirudi.



Hau izango da hitzaldi honen gaia.


- 1.- Zer da halabeharra? Nola neurritzen da?
- 2.- Sar ahal liteke eskolan halabeharraren
matematika? Zein dira horrelako sartzeak
agertuko lituzkean prolemak?
- 3.- Esenplo batzuk: zenbait ariketa edo joku
eskolan erabili daitezkeanak haurren
zentzua ernarazteko.
- 4.- Joku eta ariketa hoiek pedagogiaren al-


detik aztertu behar dira. Nola egin lan hau?



5.- Orainarte oso lan guti egin da honetaz, Euskal Herrian ez-ezik, mundu an ere. Ia dena egiteke da. Zergatik ez ikastoletan estraineko izan? Gure esperientziek garrantzi handi a ukanen lukete, beste herrietarako ere. Gai berria benetan pedagogiarren sailean.

Oharra: Karlos Santamaría jaunak emango duen gaia da.





ENTZUN-IRUSGAILUAK

Letra bidez irakurtzen da liburua, eta musika notak irakurriaz. Gisa berean-edo irudia, imajina ere, irakurri egin behar da, irakurtzen jakin, hots, irudia ere irakurtzen ikasi egin behar, ez baita berez ikasten den gauza. Zineari edo telebistari buruz jende asko da analfeto dena.

Eta honek, jakina, heziketa eskatzen du; ez gero-eta gutiago, gehiago baizik. Izan ere, haurra ordu luzeetan egon ohi da, esaterako, telebistaren aurrean buru-belarri. Horregatik, egungo gizo-






narentzat in-fluentzia handia du irudiak, eta haurrarentzat zer esanik ez. Irakurgaiak berak irudi gabeko badira,

astun eta pisu egiten zaizkie haurrei.

Alabaina, irudi geldia (argazki, margoki, filmina...) arras begiko baldin badu ere, ari teago du irudi mugikor eta hotsduna, zine ta telebista alegia.

Bestalde, haurra ikusle denez, jarrera bi eduki lezazke irudiaren aurrez: bata, pasiboki, onala txar ikusten duen oro irentsi eta jaten duelarik. Haurra maiz dakusgu hipnotizaturik bezala telebistaren aurrean. Bestea, aktiboki dagoenean, hots, o-hartuki eta zer-nolabait parte hartzen duelarik. Hau da jatorra.




Lehen esan dugun bezala, bistan da, honek heziketa eskatzen duela; eta benetako heziketa eman nahi badiogu haurrari, teknika baten jabe edo pedagogia

idurikatzeak eginaz.

Gehiago luza gabe esan dezagun: entzun-i kusgailuak gero-eta barrurago sartu eta eskuera behar ditugula ikastolan. Hala nola: diska, magne tofonu etab. edo-eta argazki, filmina, zine eta telebista.

Telebista ere bai? esan lezake norbait-tek. Baita telebista ere. Guk uste baino lehenago gainera. Aipatu besterik ez dut eginen "video-ca ssette" delakoaz egiten ari dire esperientzia ba liosak.

Zubi.



bereziaren beharra dugula hontan ere irakasleok. Ez bakarrik irudi mugikorra irakurtzen jakiteko, irudi hori hotsduna denez, mintzo dena alegia, irudi-mintzairaren teknikaz ere behar dugu jabetu.



Gure haurrek jakin dezatela irudia irakurtzen eta irudiaren aurrean itsutu gabe, behar den bezala, argazkia, musika, hotsa edo mugimendua baloratzen. Hona irudiari buruzko heziketa esaten denean esan nahi dena. Baina heziketaren lehen-urratsa litzake irudiaren irakurketa soilak. Bigarren pausobat ere eman beharko litzake: hau da, hizkuntzaren eremuan ipuin bat edo elkarrizketa bat sortzen edo idurikatzen dutenean "egile" diren bezelaxe, nola izan "zinegile", kasu honetan, gure haurrak. Halere, lehen-urratsa bezain erraza ez denez bigarren hau, urrunago ikusten dugu.

Ez litzake guti oraingoz, irakasleren batek edo bestek haur multzo batekin helduko balio lan honi, balio ere behar bait du horretarako.

Gai hontaz arduratu direnek eskema hau jarraituko dute:

- 1.- Irudi-mintzaira. Zer-nola darabilan irudiak gaurregungo jendea, eta... haurrak bereziki.
- 2.- Zinea: ikusgarri eta ikasgarri.
- 3.- Telebista.- Egun dituen alde txarrak. Halere, nola moldatu behar den heziketaren alde ikusgailu hau.

Bigarren partean, praktikotasun aldetik e

Bigarren partean, praktikotasun aldetik e ramango dute gaia. Esaterako, nola paraje bat ikeritu haurrekin, argazkiak, diapositibak edo zinerako


DIN DAN BOLE RAN...

1- Afal aurreko saioak.- Oraingo zenba ki honetan, eta informazioko sail honi buruz ari gara, kanpoko gertakizunak haizatzeko baino arreta gehiago hartuko dugu organizazio barruko zenbait puntu planteatzeko eta kursiloetan aztertu az erabaki edo programa batera hel gaitezen.

Gure organizazioaren egitura dadukagu hukitu beharrean edo, bederen, hein batetan arago finkatu beharrean. Ez bakarrik irakasleok elkarre bezala zer helburu ditugun eta nola markatu jakiteko, baita ere elkarre honek zer-nolako nortasuna eta aurpegia ukan behar dituen ahalik zeazkien ikustatzeko.

Lehena, helburuak markatzea alegia, nah bada, egingo da goizeko saioetan, eta bazkal ondoan gauza praktikoetara joko den antzera afal aurreko saioak dira prolema. Prolema, zentzu honekin: betelana egin gabe eta denbora pasatzeke nola baliatu ordu eta erdi horretaz organizazioaren axaleko arazoak ez-baina, egiturari berari dagozkionak aztertzeke?

Beraz, igaz, arratsean izan ziren ihardun haien gisako izango dira; memento honetan gure organizazioari buruz daduzkagun eginkizunik nagusienei argi egiteko.



2.- Elkartearen nortasuna.- Ez dakit, agian, elkartearen osakiak bat-banaka aipatuaz eta bakoitzari buruz hauzia zertan den adieraziaz ez ote zen egokiago "Elkartearen nortasuna" delako puntu hau, gero, osaki guztien bilduma bezala, aipatzea; baina, haste-hastetik ikuspegi zabal

bat begien bistan edukitzea ere on izan ohi delako ekin diot hemendik. Gainera, nere eginkizuna berriketaritza egitea denez, ez luke garrantzia handirik izanen batetik ala bestetik, nonahitik dela ere, gure jendeari informazioa emanaz gero.

Dena dela, esan dudan arrazoinaren gatik, Elkartearen nortasuna aipatuko dut lehenik. Gero osakiak.

a) Kidetasuna.- Gauza bat gohaz ikusten irakasleok. Apurra izan arren egin dena, ekintzak gaituela elkarreratzen ari eta oinarrizko pentsamolde eta kriteriotan elkarreratzen, gainera. Ez da hau ikusteko lau begiren beharrik. Honela, aurten eman ditugun pausok beren kili-kolo guztiekin ere, esperientzia onik aportatu daukute, urte luzeetan erdietsi eta lortu ez duguna, lortu bait dugu.

Egun, askatu talde bat ba
dugu handik eta hemendik
astean-astean egun bat e
do beste harturik, batzar
tzen direla elkarrekin.

Askatuak alde batetik eta baseko jendea, irakasleen egun oroko esperientzia, bestetik, biak ongi josirik, hauxe da lehenik organizazio bat sortzeko oinarririk fermu eta sendoena. Eta hau haizekeriarik gabe baina, gaurregun ba dugula hein batetan esan genezake.

b) Tresneria.- Halarik ere, elkarte batek arnasez iraun edo bere eginkizuna kemenez bete ahalean desarroila dadin, ez du aski bere jendearen artean kidetasun hori sortu edo bizitzea, behar du baita zerbaitetan kokatu. Edozein erakundek, alegia, tresna batzuen beharra du bere nortasuna borobiltzeko. Eta ez dut orain lege

babes bat preseski behar duenik esan nahi, ez.

Tresna batzuek diot. Etxe bat, adibidez, liburu eta lanerako behar diren gauzekin. Pauso hau ere guti edo gehiago emanik dugu.

d) Lege arauak. - Eta orain dator lege babesa, ez inportanteena inola ere, baina bai maila batean beharreko dena elkarteak gorputz har dezan.

Agian araudi bat behar genuke lehen-lehenik. Araudi hitza aipatzeak, ordea, beldurapur bat edonori ezar lezakiokela ikusten dut. Behar bada lege, araudi eta horrelakoek, bizitza ito egiten dutenez, neri beldurra ezartzen dautatelako izango da, baina ezin uka berez arrizkua jokatzeko ez denik legearen babesera bilduaz.

Halere, lege-babes eta araudi minimum baten beharra dugu, nere ustez. Eta pentsa ongi irakasleok, zerbait gertatu ondoan itsumustuan ibil ez gaitezeko.

Zergatik behar ditugun lege eta araudi bat gure kasuan? Hara, etxe bat dadukagu (Gordailu); denda bat dadukagu (Haurride). Alegia, bilkurak egiten ditugula batean eta beraz, jende multzo bat pasatzen dela hau eta hori etxe horretatik asteen zehar. Ondasun batzuek sor litezke bestetik denda aurrera baldin badoh'a behintzat. Gisa horretako beste zenbait tresnaren jabe ere egin liteke elkarteak han-hemenka, preseski Gipuzkoan ez bada ere.

Bestalde, norabait johanen garenean, umetzat hartzen gaituztela edo gehienik funtsik gabeko hiru-lau gaztetxo bagina bezala tratatzeak min ematen dauku eta kokotzeraino gauzkala esaten ba dut ez dut gehiegi esaten, eta ondorioz, nahiz-eta arrazoina eduki, indarrak jaten du ba-

za.

Dena den, lehenik edo azkenik baina kursilo etan ongi jorratzea merezi duen gaia dela ikusten dut.



3.- Urteko programa. - Ez gara hemen ikastola bakoitzak bere barruan urterako egin behar duen plana eta programari buruz ari. Hau besterik da, ikusiko duzunez.

Aurtengo udako ikastaldiak prestatzeak gauza bat erakutsi dauku: gai multzo bat harturik, edo lan sail bakoitzari erantzun behar zaiolako edo guti-asko guztien premia ikusten delako bakarrik, ez litekeala kursilo bat honela munta, zeren-eta lukainka izugarri bat gertatzeko arriskua bait du eta gai guztiak axaletik jotzen direnez, sakontasunik ez lekarke luzaz.

Beraz, ikastaldiei buruzko konzeptu berri bat moldatu behar da. Zergatik ikusten da, noski. Nola galdegaiari erantzutea zailago zaigu memento honetan. Korapilo hau guztien iritziz oraindanik behar litzake aska.

Aurtengo ikastaldiak prestatzen ere ideia horrek ukan du aginpide. Buruetan ibili dela argiro ageri du kursiloaren egitura hiru gaien biran dagoela ohartzeko bagara, hiru gaiek osatzen bait dute ardatza (ingurua, hizkuntza eta Lege Berriak), baina hain guti nabarmentzen dira, non beste zenbait gai eraskinek estalirik bezala aurkitzen dira.

Honela bada, datorren urteko elkarteren ikasgai-programa, bizpahiru gai berezi berezi hautatuaz egin behar litzake, eta etengabe

horien lantzen ihardun, gure lan pertsonala eta herri mailako edo balarako elkarrekiko lana eta arduradunena ere, bereziki hortaraxe zuzentzen delarik.

Zer gairen beharra ikustatzen den jadanik? Ez dakit ikastaldia baino lehen eman daitezken zehatz-mehatz. Halere, posibletzat aipatu daitezkeanak, bai, ikusten dira:

a) Inquruaren estudioa. - Hau ikastaldiaren lehendabiziko egun bitan zerbait landuko denez, gerta liteke jendearen kontzientzia prolema honek biziki piztea eta beraz, premia ikusieraztea. Halere, langile taldekoak salbu, ez dut kezka larriegirik ba denik uste gure artean. A-gian, horretxengatik, ohartu ere gabe gaudelako hain xuxen, sor liteke sukar minik handiena. Ez legoke gaizki.

b) Liburu eta fitxak. - Amaitzen dohan ikastaro honetan iduri du zertxobait jabetu gara la hontaz. Teorian behintzat, liburuen arazoa ipini da konponbidean. Zenbait fitxa lan ere egin da. Baina esku askoren beharra nabari da oraino sekulako lan eder hau aurrerat eramateko, hasi ttipien mailatik eta lehen maila guztian barna denok eta bakoitzaren aportazioa eskatzen delarik.

d) Euskara. - Izan liteke hau beste gaia. Nik ez dut aipatu baizik eginen eta bai, ordea, al dizkari honetan berean "Xabier" ek izenpeturiko artikuloa arretaz irakurtzea gomendatu.


Azkenik, derriorreko den beste honela ko gairen bat sor liteke edo ezagutzera eman ikastaldietan. Ez litzake ahaztu eta zokoratu beharko.

4.- Aldizkaria. - Arras gazteturik datorrela ohartu zarete, noski. Ikus azken-ale biak e

ta ma~~se~~atu kritika taxuzko bat eginaz.

Taldea, aldizkariaren arduradun taldea osatuago eta planteamendu berria eginik hilabete oro argitaratuko dela uste dugu, denok nahi izanik behintzat.

Honek plan bat egitea eskatzen du: gaiak, harpidedunak, lankideak, ekonomia..... Horra.



Nahiko luze badohala oharturik sail hau, eta han, Iruñan, hariari jarraituko diogulakoan.....

Berriketari.



Aintzin-solasa.....	2
Udako ikastaldia.....	4
Galdekizunaren bilduma	7
Herri langilea.....	14
Ikastola eta hizkuntza.....	18
Erlijioa.....	23
Halabeharraren Matematika eskolan.....	26
Entzun-ikusgailuak.....	29
Din dan boieran.....	32
Zer-Nun.....	38

